



| MUTRIKUKO UDALA  | AYUNTAMIENTO DE MUTRIKU  |
|--|--|
| <p><i>Covid-19aren ondorioz, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorea suspertzeko bonuen kanpaina</i></p>   | <p><i>Campaña de bonos para incentivar el comercio local, la hostelería y el sector servicios como consecuencia de la Covid-19</i></p>   |
| <p><b>OINARRIAK</b></p>  | <p><b>BASES</b></p>  |
| <p><b>1. Kanpainaren xedea</b></p>   | <p><b>1. Objetivo de la campaña</b></p>  |
| <p>Erosketa bonoen kanpaina honek diru laguntza izaera du eta COVID-19aren alarma-egoerak eragindako krisiaren dela-eta, Mutriku-ko merkataritza, ostalaritza, eta zerbitzuetako aktibitatea berreskuratzeko, kontsumoa sustatuko duen eta herriko familien ekonomiari lagunduko dien bonu sistema sortzea du helburu.</p>   | <p>Esta campaña de bonos de compra tiene carácter de subvención y tiene como objetivo crear un sistema de bonos que fomente el consumo para recuperar la actividad comercial, hostelera y de servicios del municipio de Mutriku, debido a la crisis provocada por la alarma del COVID-19, así como ayudar a la economía de las familias de Mutriku.</p>  |
| <p>Bonoen kanpaina honek 50,00 €ko balioko 2.400 bono jarri nahi ditu zirkulazioan, herriko establezimenduetan gastatzeko, eta Mutrikuko biztanle bakoitzari aukera emango dio gutxienez bi bono eskuratzeko. Diru laguntza lerroa izanik, onuradunak Mutrikuko herritarrak dira: 50,00 €ko erosketa bono bakoitzagatik herritarrak 35,00 € ordainduko du, eta udalak 15,00 €. Horrekin lortu nahi da, epe labur batean, herriko negozioetan 120.000,00 € sartzea eta herriko familien erosketa ahalmenari 36.000,00 €rekin laguntzea.</p> | <p>Esta campaña de bonos pretende poner en circulación 2.400 bonos por valor de 50,00 € para gastar en los establecimientos de la localidad y permitirá a cada habitante de Mutriku adquirir al menos dos bonos. Al tratarse de una línea subvencional, los beneficiarios son los vecinos de Mutriku: por cada bono de compra de 50,00 € el ciudadano pagará 35,00 € y el ayuntamiento 15,00 €. Con ello se pretende, en un breve plazo de tiempo, inyectar 120.000,00 € en los negocios de la localidad y apoyar económicamente el poder adquisitivo de las familias del municipio con 36.000,00 €.</p> |
| <p>Hauek dira programaren helburuak:</p>   | <p>Los objetivos del programa son:</p>   |
| <ul style="list-style-type: none"><li>- Herriko establezimenduetan salerosketak piztea, Covid-19ko pandemiagatik kaltetua izan den herriko ekonomia bultzatu eta bertako kontsumoa indartu eta sustatzeko.</li><li>- Egoerak kaltetutako Mutrikuko familien ekonomiei laguntzea.</li></ul>   | <ul style="list-style-type: none"><li>- Incentivar la compraventa en los establecimientos del municipio para impulsar la economía local afectada por la pandemia de Covid- 19 y potenciar y fomentar su consumo.</li><li>- Apoyo a las economías de las familias de Mutriku afectadas por la situación.</li></ul>  |
| <p><b>2. Onuradunak</b></p>  | <p><b>2. Beneficiarios</b></p>   |
| <p>Laguntzen onuradunak Mutrikun erroldatutako herritarrak izango dira.</p>  | <p>Los beneficiarios de las ayudas serán ciudadanos empadronados en Mutriku.</p>   |



## Mutrikuko Udala

Mutrikuko Udalak salgai jarritako 50,00 €ko balioko bonoa erostean, herritarrak 35,00 € ordainduko du eta udalak gainerako 15,00 €ak jarriko ditu, eta hori izango da, hain zuzen, jasoko duen diru laguntza.

Bonoen banaketa NAN zenbaki bakoitzari lotua egingo da. Horrela, bakoitzak bi bono erosi ahal izango ditu gehienez.

Bonuak eskuratzeko dokumentu honetan jasutzen diren oinarriak onartzea dakar.

### 3. Finantzaketa

Bonuak finantzatzeko gehieneko kreditua 40.000,00€koa da.

Mutrikuko Udaleko 2021ko ekitaldirak Aurrekontu Orokorretako 1500.480.01.430.00 partidari egotziko zaizkio bonuak.

### 4. Bonoen ezaugarriak eta erabilera baldintzak:

#### 4.1. Herritarrak nola erabiliko ditu bonoak:

— Bonoen prezioa eta balioa.

Mutrikuko Udalak 50,00 €ko balioa duten bonoak salduko ditu. Herritarrek, bono bakoitzeko 35,00 € ordainduko dute. Gainontzeko 15,00€ak udalak jarriko ditu.

— Non eta noiz eros daitezke bonoak.

Bonuak Urriaren 4tik aurrera erosi ahal izango dira herriko Turismo Bulegoan.

Bonuak erosteko unean bertan ordaindu behar da eta berauek erosteko lehenasunezko ordainketa sistema banku-txartela izango da.

Ezingo da 4 bono baina gehiago erosi aldi berean.

El ciudadano que adquiera uno de los bonos que pondrá a la venta el Ayuntamiento de Mutriku pagará 35,00 € y el Ayuntamiento aportará otros 15,00 €, que será la subvención que reciba el ciudadano, de forma que el bono tendrá un valor de 50,00€ .

La distribución de los bonos se realizará asociada a cada número de DNI, de forma que cada uno de ellos pueda adquirir un máximo de dos bonos.

La adquisición de bonos supone la aceptación de las bases que se recogen en este documento.

### 3. Financiación

El crédito máximo para financiar bonos es de 40.000,00 €.

Los bonos se imputarán a la partida 1500.480.01.430.00 de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Mutriku para el ejercicio 2021.

### 4. Características y condiciones de uso de los bonos:

#### 4.1. Utilización de los bonos por parte del ciudadano:

— Precio y valor de los bonos. El Ayuntamiento de Mutriku venderá bonos con valor de 50,00 €. Los ciudadanos pagarán 35,00 € por bono. Los 15,00 € restantes los aportará el Ayuntamiento.

— Dónde y cuándo se pueden comprar los bonos.

Los bonos se podrán adquirir a partir del 4 de octubre en la Oficina de Turismo de la localidad.

Los bonos deben pagarse en el mismo momento y el sistema de pago preferente para su adquisición será la tarjeta bancaria.

No se podrá adquirir más de 4 bonos en la misma compra.



## Mutrikuko Udala

|  |  |
|--|--|
| <p>— Bonoak erabiltzeko epea.<br/>Bonuak 2021eko azaroaren 13 baino lehen erabili beharko dira. Epe horren barruan erabiltzen ez den bonoa balio barik geratuko da, ezingo da erabili. Erabili ez diren bonoak ezingo zaizkio itzuli Udalari.</p> <p>— Non erabili daitezke bonoak.<br/>Bonoak kanpainara atxikitako Mutrikuko establezimenduetan erabili ahalko dira, izan denda, edo bestelako zerbitzu. Edozein kasutan, kanpainan parte hartu edo ez, establezimendu bakoitzaren erabakia izango da. <a href="http://www.mutriku.eus">www.mutriku.eus</a> web gunean argitaratuko da parte hartzen duten establezimenduen zerrenda.</p> <p>Kanpainatik kanpo geratuko dira, azalera handiko saltokiak (frankizia propioa dutenak) eta gasolindegia. Jokoari lotutako erosketak ezin izango dira bonoekin egin, loteria barne.</p> <p>Erabiltzaileak bonu originalak aurkeztu eta entregatu beharko ditu erosketaren egiten duen establezimenduan.</p> <p>— Nola erabili bonoak<br/>Bonoak frakzionatuta banatuko dira, eta frakzio bakoitza zatiezina izango da; erosketaren bakoitzean, gutxienez horietako frakzio oso bat erabili beharko da.</p> <p>Frakzioak hauek izango dira : 10,00€ko 3 frakzioa eta 5,00€ko 4 frakzio.</p> <p>Erosketa-tiketaren zenbatekoa bonuaren frakzioaren kopuru bera edota handiagoa izan beharko du.</p> <p>Erosketaren zenbatekoa bonuaren zenbatekoa baino txikiagoa bada, diferentzia ez da eskudirutan itzuliko. Hortaz bonu frakzio bakoitza erosketaren edota kontsumizio bakoitzean osorik agortu beharko da.</p> <p>Bonuak ezin dira dirutan trukatu eta ez da inolaz ere eskudirurik itzuliko.</p> <p>4.2. Establezimenduak nola kudeatu bonoak:</p> | <p>— Plazo para la utilización de los bonos.<br/>Los bonos deberán utilizarse antes del 13 de noviembre del 2021. Los bonos no utilizados no podrán ser devueltos al Ayuntamiento.</p> <p>— Dónde se pueden utilizar los bonos.<br/>Los bonos podrán utilizarse en los establecimientos de Mutriku que se hayan adherido a la campaña, ya sea tienda u otros servicios. En todo caso, la participación o no en la campaña será decisión de cada establecimiento. El ayuntamiento publicará la lista de los establecimientos participantes en la <a href="http://www.mutriku.eus">página www.mutriku.eus</a>.</p> <p>Quedarán excluidos de la campaña, los comercios de gran superficie (los que tiene franquicia propia) y gasolineras; Las compras asociadas al juego no podrán realizarse con los bonos, incluida la compra de lotería.</p> <p>El usuario deberá presentar y entregar los bonos originales en el establecimiento donde realice la compra.</p> <p>— Cómo utilizar los bonos<br/>Los bonos se distribuirán fraccionados y cada fracción será indivisible, debiendo utilizarse en cada compra al menos una fracción completa de los mismos.</p> <p>Las fracciones serán: 3 fracciones de 10,00 € y 4 fracciones de 5,00 €.</p> <p>El importe del ticket de compra deberá ser igual o superior a la fracción del bono.</p> <p>Si el importe de la compra es inferior al importe del bono, la diferencia no se devolverá en efectivo. Por lo tanto, cada bono deberá agotarse íntegramente en cada compra y/o consumición.</p> <p>Los bonos no se pueden canjear en metálico y en ningún caso se devolverá efectivo.</p> <p>4.2. Gestión de bonos por parte del</p> |
|--|--|



## Mutrikuko Udala

— Bonoez ordaindutako salmentak nola kudeatu:

Establezimenduak bonoa, osoa edo frakzioka, onartuko du erosketaren ordainketa modura. Bonu originala establezimenduak hartuko du eta salmenta tiketa atxikiko dio.

— Mutrikuko Udalarekin bonoen likidazioa nola egin.

Enpresak bonoak ez ditu bakarka aurkeztuko. Hamabost egunean behin, [www.mutriku.eus-en](http://www.mutriku.eus) deskargatu dezakeen likidazio orria bete beharko du, bonoekin egindako salmenta guztiak zerrendatuaz, eta Mutrikuko Turismo bulegoan aurkeztuko ditu, aurrez txanda hartu ondoren, fitxan agertzen diren salementa guztiei dagozkien bono eta tiketekin batera.

Agiriak aurkeztu ahala udalak aurkeztutako bonuei dagokien zenbatekoa establezimenduari ordainduko die, atxikimendu eskaera orrian emandako kontu-korronte zenbakian, transferentzia bidez.

— Noiz arte onartu bonoak establezimenduan.

Bonoen bidez ordainketak onartzeko azken eguna 2021ko azaroaren 13a izango da.

— Udalarekin bonoen likidazioa egiteko epemuga.

Establezimenduak Mutrikuko Udalari bonoen likidazioa aurkezteko azken eguna 2021ko azaoraren 18a izango da.

### 4.3. Establezimenduak atxikitze prozedura eta baldintzak:

— Zeinek hartu dezake parte kanpainan:

### establecimiento:

— Cómo gestionar las compras con los bonos.

El establecimiento aceptará el bono como forma de pago, completo o en una o varias fracciones. El bono original se lo quedará el establecimiento y deberá adjuntarle el ticket de compra.

— Cómo realizar la liquidación de bonos con el Ayuntamiento de Mutriku.

La empresa no presentará los bonos de forma individual. Cada quince días deberá rellenar la hoja de liquidación que puede descargar en [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus), relacionando todas las ventas realizadas con los bonos, y presentarla en la oficina de turismo de Mutriku, junto con los bonos y tickets correspondientes a todas las ventas que figuran en la ficha. Será necesario coger cita previa en la oficina de turismo para presentar la liquidación.

A medida que se vayan presentando las liquidaciones, el ayuntamiento abonará al establecimiento el importe correspondiente a los bonos presentados, mediante transferencia en el número de cuenta corriente facilitado en la hoja de solicitud de adhesión.

— Hasta cuándo se aceptaran los bonos en los establecimientos:

La fecha límite para aceptar pagos mediante bonos será el 13 de noviembre de 2021 .

— Fecha límite para la liquidación de bonos con el Ayuntamiento.

La fecha límite para que el establecimiento presente la liquidación de los bonos al Ayuntamiento de Mutriku será el 18 de noviembre de 2021.

### 4.3. Procedimiento y condiciones de adhesión de los establecimientos:

— Qué establecimientos podrán participar en la campaña:



## Mutrikuko Udala

Edozein pertsona fisiko edo juridikok parte hartu ahal izango du kanpaina honetan, baldin eta bere enpresa-jarduera merkataritza, ostalaritza, alojamendua edo zerbitzuen sektorearen barruan kokatzen bada, kalean establezimendu irekia badu ekonomia-jardueren gaineko zergan dagokion altarekin, eta honako ezaugarri hauek betetzen baditu: Saltokia Mutrikun izatea. Pertsona fisikoei zuzendutako produktuak eta zerbitzuak saltzea.

Kanpainatik kanpo geratuko dira, azalera handiko saltokiak, frankiziadun supermerkatuak eta gasolindegia.

Jokoari lotutako ordainketak ezin izango dira bonoekin egin (Loteria, Kiniela...).

— Kanpainen parte hartzeko prozedura:

Kanpainen parte hartzeko establezimenduak eskabide bat egin beharko du. Eskabidea egiteko inprimakia eta beharrezko dokumentazioaren informazioa [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) —en aurkitu daiteke.

Eskabideak, nahitaezko dokumentazioarekin batera eta dagokion eskabide-inprimakia osorik beteta aurkeztuko dira Mutrikuko Udalaren erregistro elektronikoen bidez aurkeztuko dira ([www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus)).

Eskabidea elektronikoki aurkezteko baliabiderik edo gaitasunik ez badago, eskabideak Udaleko harrera bulegoan aurkeztu ahal izango dira, era presentzialean edo posta zertifikatu bidez bidaliko dira Mutrikuko Udala, Txurruka Plaza z.g. 20830. Mutriku helbidera.

Kanpainari buruzko informazio guztia [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) webgunean egongo da eskuragarri.

— Establezimenduek parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea:

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea Alkate ebazpenez zehaztuko da.

Podrá participar en esta campaña cualquier persona física o jurídica cuya actividad empresarial se encuadre dentro del sector comercial, hosteleros, alojamiento o de servicios, tenga un establecimiento abierto al público con el alta correspondiente en el Impuesto de Actividades Económicas y reúna las siguientes características: Establecimiento ubicado en Mutriku. Venta de productos y servicios destinados a personas físicas.

Quedarán excluidos de la campaña, los comercios de gran superficie, supermercados franquiciados y gasolineras.

No se podrá utilizar los bonos para realizar pagos ligados a juegos (Loteria, Quiniela...).

— Procedimiento de participación en la campaña:

Para participar en la campaña, el establecimiento tiene que enviar la solicitud. La documentación necesaria y el formulario para realizar la solicitud encontrarán en [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus).

Las solicitudes, junto con la documentación preceptiva, se presentarán cumplimentando en su totalidad el correspondiente formulario de solicitud. Las solicitudes se presentarán preferentemente a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Mutriku ([www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus))

En caso de falta de medios o capacidad para presentar la solicitud electrónicamente las solicitudes podrán presentarse en la oficina de atención al público del ayuntamiento o mediante carta certificada a la siguiente dirección: Mutrikuko Udala. Plaza txurruka s/n. 20830. Mutriku.

Toda la información sobre la campaña estará disponible en la página web [www.mutriku.eus](http://www.mutriku.eus) así como en la oficina de turismo.

— Plazo para presentar la solicitud para participar en la campaña:

El plazo de presentación de solicitudes de participación se determinará mediante



## Mutrikuko Udala

|   |   |
|---|---|
| <p>— <i>Atxikitako enpresen betebeharrak</i></p> <p>Atxikitako enpresek kanpainako informazio-materialak jasotzeko, kokatzeko eta, hala badagokio, zabaltzeko konpromisoa hartzen dute, eta establezimenduan ondo ikusteko moduan jarriko dituzte. Informazio-materiala honako hau izango da:</p> <p>Kanpainako parte-hartzaile moduan identifikatzen dituen kartela.</p> <p>Aldi berean, atxikitako enpresetako arduradunek konpromisoa hartzen dute establezimenduan erabilitako bonuak egiazkoak direla egiaztatzeko.</p> <p>Kontsumitzaileak bonua erabili ondoren, establezimendua arduratuko da bonuak behar den bezala Mutrikuko Udaletxean aurkezteaz, oinarri hauetako 4.2. atalean jartzen duen prozedura jarraituaz.</p> <p>Kanpainara atxikitzean, parte hartzaileen eta udalaren arteko komunikazioa errazteko sortuko den whatsaspp taldean parte hartzeko baimena ematen du.</p> <p><b>5. Ikuskatzea eta ez-betetzeak</b></p> <p>Mutrikuko Udalak egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu, ziurtatzeko baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela.</p> <p>Dirulaguntza ematea baliogabetuko da eta jasotako zenbatekoak zati batean edo oso-osorik itzuliko dira, 38/2003 Legeak 36. eta 37. artikuluetan eta gainerako araudi orokor aplikagarriek xedatutako kasuetan, baita arau hauetan ezarritako eginkizunak betetzen ez diren kasuetan ere.</p> <p><b>6. Araudi Aplikagarria</b></p> | <p>resolución de Alcaldía.</p> <p>— <i>Obligaciones de las empresas adheridas</i></p> <p>Obligaciones de las empresas adheridas:<br/>Las empresas adheridas se comprometen a recoger, ubicar y, en su caso, difundir los materiales informativos de la campaña, colocándolos de forma visible en el establecimiento. El material informativo será:</p> <p>Cartel que los identifica como participantes de la campaña.</p> <p>Al mismo tiempo, los responsables de las empresas adheridas se comprometen a verificar la autenticidad de los bonos utilizados en el establecimiento.</p> <p>Una vez que el consumidor haya utilizado el bono, la empresa se encargará de entregarlo en el Ayuntamiento de Mutriku siguiendo el procedimiento marcado en el punto 4.2. de las presentes bases.</p> <p>Al adherirse a la campaña, la empresa consiente en su participación en el grupo whatsaspp que se creará para facilitar la comunicación del ayuntamiento con los participantes.</p> <p><b>5. Inspección e Incumplimientos</b></p> <p>El Ayuntamiento de Mutriku se reserva el derecho de realizar cuantas comprobaciones, inspecciones y demás medidas de control estime oportunas para velar por la correcta aplicación de los recursos públicos y para verificar el correcto desarrollo y aplicación del presente Programa de ayudas.</p> <p>Procederá la revocación de la concesión y el reintegro, total o parcial, de las cantidades percibidas, en los casos establecidos en los artículos 36 y 37 de la Ley 38/2003 y demás normativa general que resulte de aplicación, así como en el caso de incumplimiento de las obligaciones recogidas en las presentes normas.</p> <p><b>6. Normativa Aplicable</b></p> |
|---|---|



## **Mutrikuko Udala**

Oinarri hauetan jasotzen ez den guztiari Mutrikuko Udalak Emandako Diru laguntzak Kudeatzeko Ordenantza Orokorra, azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa eta indarrean dauden gainerako arauak aplikatuko zaizkio.

### **7. Araudia Garatzea eta Exekuzioa**

Mutrikuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak oinarri hauen garapenerako eta exekuziorako beharrezko diren xedapen guztiak emango ditu.

En todo lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo dispuesto en la ordenanza General para la Gestión de las Subvenciones Concedidas por el Ayuntamiento de Mutriku, en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y en las demás normas de aplicación.

### **7. Desarrollo Normativo y Ejecución**

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Mutriku dictará cuantos actos sean necesarias para el desarrollo, ejecución e interpretación de las presentes bases.



***Mutrikuko Udala***